

# FUNTSEZKO SOZIETATEAK



Gure enpresaren zeregina kontuan hartuta, ez ditugu hornitzaile nagusirik, bazkide nagusiak baizik.

Hori kontuan izanda, gure bazkide nagusienetariko bat, udala izango da, hainbat zerbitzu eskainiko dizkigulako, gure lokalaren jardueren truke, arrazoi nagusi batengatik: gure lokalak zentro-zibikoek eskaintzen ez dituzten hainbat osagarri dituelako.

Alde batetik, bere garbiketa zerbitzua erabiltzeko akordio bat sinatu dugu, egunero gure lokala garbitzeko pertsona-talde bat izateko. Eta, beste aldetik, bere mantentze-zerbitzuak eskainiko dizkigu ere bai, behar dugunean gure makina eta ekipamenduak konpontzeko edo ondo daudela zihurtatzeko.

Gero, izango dugun beste bazkide bat, “vending” makinak ekoizten dituen enpresa bat izango da, makinetaz arduratuko dena, gure hileroko irabazien zati bat ematearen truke.